

JAKINARAZTEN DA Alkateak, 2025eko azaroaren 20an, ondorengo Dekretu hau eman duela:

“Bergarako Udalak Osintxuko Txuringo tabernaren ustiaketarako emakida esleitzeko deialdia ireki zuen (Esp.zka.: 2025KOZB0012). Deialdi horretan parte hartzeko eskaerak aurkezteko mugaeguna 2025eko azaroaren 17a zen. Eskaintzarik jaso ez dela kontuan izanda, deialdia hutsik aitortzea dagokio.

Horiek horrela,

ERABAKI DUT

LEHENENGOA: Osintxuko Txuringo tabernaren ustiaketarako emakida esleitzeko deialdia hutsik aitortzea (Esp.zka.: 2025KOZB0012).

BIGARRENA: Berri ematea Kontu-hartzailetzari eta Lurralde Batzordeari.

HIRUGARRENA: Erabakia argitaratzea Bergarako webgunean.”

Ebazpenaren aurkako bideak

Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka Administrazioarekiko auzi errekurtsua jar dezakezu, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. Horretarako bi hilabeteko epea duzu, jakinarazpen hau jasotzen duzun hurrengo egunetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatzian adierazitako Administrazioarekiko Auzi errekurtsuaren aurretik, berraztertze errekurtsua jar dezakezu erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean jakinarazpena jasotzen duzun hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Dena den, egoki deritzozun beste edozein errekurtsu ere jar dezakezu.

LEGE-OINARRIA: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c, 123. eta 124. atalak, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. atala, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan aldatua, eta lege bereko 46. atalak eta Kode Zibilaren 5. atala.

Bergaran, sinadura elektronikoaren datan
IDAZKARIA

